

## Poetak

**E**sango didate sartzeko neure kon-tuetan, dedikatzeke poesiara, egiteko neure ezinaren neurriko kaiola bat eta errenditzeko bertan, baina ezin dut. Ez naiz Paul Eluard, ez naiz poeta, baina edozeinek beretzat eta denok geuretzat hartzeko modukoak iruditzen zaizkit hizok: Garaia heldu da, poeta orok du eskubidea eta betebeharrak beste pertsonen bizitzetan —bizitza komunean— sakonki hondoratzeke.

Zer da ordea beste pertsonen bizitzetan sakonki hondoratzea? Zu besteak zarezala konturatzea. Arazok kolektiboak direla, konponbideak bezalaxe. Ber-

dintasuna ez dela helburua, abiapuntua baizik. Eta sartu egin behar duzula bizitza komunean.

Egin ezean, kapitala baino ez da sartzeko gure bizitzetan, lege zaharra eta ordena, Maggie, Burdinazko Dama, behin 26 urte beteta autobusean dabilenak bizitzan porrot egin duela esaten, norbere gain uzten porrotaren zama, norbere gain zorianaren lana. Erosi ezazu bizimodu bat. Ez soilik eskuineko eta atzerakoien, ezkerreko uste genituen egunkarien igandetako gehigarriak zer dira ba, bizitza modernoa eta bete lortzeko beharrezko produktuen katalogoak baino? Erosi bizimodu bat. Heriotza baino ez dizugu emango debalde.



**Jira**  
Xabier Gantzarain

## Galduta

**J**oan zaitex etxera, eta sartu zakuetan J argazki guztiak: ama, xingola zuriz apaindutako neska kokkorra, baserri atarian. Eta aita, 19 urteko mutil gazte lerdana, lagunekin sanferminetan. Eta aitona-amonak igandetako arropa dotorez, Gernikako arbolaren aurrean. Eta ama Kontxako barandilan, burua Natalie Woodi ikasitako tankeran paratuta. Eta gurasoak barrez, mendipuntaren batean. Eta zu zeu larrogorri sehaskan. Eta kaikuaren azpitik Heidiren kamiseta jantzita ikastolako atarian. Eta ahizparekin eta lehen-guzuekin osaba hippiaren Dyane Garen ondoan. Eta praka laranja fosforitoekin

dantzant Benidormen, ikasbidaian. Eta maiteminaeren ikaskide izan zenuen pertsona hura. Eta zeure kabuz bizitzera eraman zintuzten lagunak Billbon, eta Donostian, eta Londresen, eta...

Eta hartu beste zaku bat, eta sartu gordeta daukazun eskutitz eta koader-no guztiak. Liburu denak beste batean. Berdin disko, CD eta kaseteak. Bildu zakuetan arropa eta apaingarri denak.

Sartu kaxetan ordenagailu eta memoriariako trepeta teknologiko guztiak. Batu hori dena, eta emaitza su. Halaxe nago, bizirik baina bizitza galduta.

Halaxe erantzun zidan etxera sute batean galdu zuen lagun batek zer moduz zegoen galdutu nionean. Halaxe dira Bermeon egunotan.



**Bira**  
Idurre Eskisabel

### Zuzendaria:

Martxelo Otamendi

**Zuzendariordea:**

Iñaki Pexarroman

**Edizio arduraduna:**

Andoni Alvarez

**Argitaratzailea:**

Euskal Editorea SM

**Publizitatea:** Bidera

publizitatea

**Lege gordailua:**

SS-0662/03

**Batzorde parekidea:**

0712184059

**Egoitza nagusia:**

Martin Ugalde kultur parkea.

Gudarien Etorbidea, z/g,

20140 Andoain.

**Telefonoa:**

(0034) 943-30 40 30

**Faxa:** (0034) 943-30 09 43

**Webgunea:**

www.berria.info

**Posta elektronikoa:**

berria@berria.info

**Publizitatea:**

publi@bidera.eu

**Harpidetza saila:**

(0034) 943-30 43 45

**Date:** 13/04/2013

**Exemplaire:** 3.042

**Editore:** Euskal Editorea s.l.

**Directeur de publication:**

Martxelo Otamendi

**Comission paritaire:**

0712184059

**Delegation Labourd:**

Lisses 3, 64100-Baiona.

Tel.: (0033) 559256220.

Fax: (0033) 559254303.

E-mail: lapurdi@berria.info

**ORDEZKARITZAK**

**Araba:** Bizenta Mogel, 6.

Posta kodea: 01008

Gasteiz. Telefonoa:

945-15 04 52. Erredakzioko

faxa: 945-14 83 07.

Posta elektronikoa:

araba@berria.info.

**Bizkaia:** Uribitarte kalea, 18,

3. C. Posta kodea: 48001

Billbo. Telefonoa:

94-435 26 00. Erredakzioko

faxa: 94-423 49 75.

Posta elektronikoa:

bizkaia@berria.info.

**Lapurdi:** Lisses, 3. Posta

kodea: 64100 Baiona.

Telefonoa: 559-25 62 20.

Faxa: 559-25 43 03.

Posta elektronikoa:

lapurdi@berria.info.

**Nafarroa:** Iratxeko Monaste-

ria, 45, 13. Posta kodea:

31011 Iruñea. Telefonoa:

948-36 66 22.

Publizitatea: 948-36 66 23.

Posta elektronikoa:

nafrarrea@berria.info.

# Birgizarteratzea

## Jon Mirena Landa

EHUko Zuzenbide Penaleko irakaslea

**1. Historia.** Presondegietan dagoen egoeraz hitz egiten denean hala-beharrez birgizarteratzea azaltzen da, zigorrak berak omen duen helburua den neurrian. Ez da hura, ordea, zigorraren helburuekin harremanetan azaltzen den hitz edota esamolde bakarra. Horrekin batera, txertatzea, birtxertatzea («reinsención»), heztea edo birreztatzea («reeducación») ere aipagai izaten dira. Baina zer dago horien atzean? Zein izan beharko litzateke giza eskubideak errespetatuz aipatu hitzek edo printzipioek izan beharko luketen esanahia?

Kartzela, erromatarren zuzenbidean ez zen zigorra. Ezta geroago ere: alegia, Erdi Aroan eta ia Aro Modernora arte (XVIII. mendera arte) kartzela ez zen delitu bat egin izanaren ondorioa. Espetxea erabiliz gero, tresna prozesala besterik ez zen, norbait epaiketaren esperotan edukitzeko. Normalean ekintza kriminala aurrera eramaten zenean erantzuna heriotza-zigorra zen, mota guztietako torturak lagun. Frantziako Iraultzaz geroztik, ordea, Ilustrazioaren filosofiarekin batera, zigor publikoa arrazionalizatu nahi izan zen. Gizabanakoa-ren gan konfiantza piztu zen: delitugilerik gupidagabeenak ere alda zitekeela sinesten zen, beti ere aldaketa eragiteko behar bezalako estrategia jarraituz gero.

Ilustrazio-filosofia berriak, hortaz, lehenik eta behin efikazia go-raipatzen du: erantzun penal arrazionalak emanez gero botere publikoetatik delitugintza hobeto kontrolatu egingo da. Botere publikoaren krudelkeriak ez du delitugin-

tzatza behar bezala kudeatzen. Hori dela eta, gizatasun-printzipioa, baretetik, eta birgizarteratze-printzipioa, bestetik, garatzen hasi ziren. Hau da, kartzela eta presoaldia —zigor bezala— hausnarketagai bilakatu ziren: galdere piztu zen, kartzela barruan ematen den denborarekin zer egitearen inguruan. Presoaldia tresna prozesala izateari utzi eta zigor nagusi bilakatu zen, heriotza-zigorra eta zigor fisikoaren ordez. Presoaldia zigorgisa izan zen estratgia berria, delitugileak espetxetik pasatu ondoren, zigartara hiritar «txintxo» bezala itzuli daitezke.

Gizatasun-printzipio eta birgizarteratze-printzipioen filosofia ezartzen hasi ziren XIX-XX. mendeetan zehar bai Mendebaldeko Europan bai Estatu Batuetan. Espainiako Estatuan horren isla ere zigor eta presondegi alorrean nabaritu ahal izan zen. Baina dikta-durak direla-eta, Espainiako Konstituzioa (1978) eta Presondegi Lege Organiko Orokorra (1979) onartu arte itxaron behar izan zen aipatu printzipioak, batez ere «birgizarteratzearena», legezko ideologian bete-betean teoriaz behinik behin ikusteko. Biek, ordea, printzipio horren aipamena egiteko orduan bi hitz erabiltzen dituzte: birreztatzea («reeducación») eta birtxertatzea («reinsención»).

**2. Polemika.** Terminoen borrokak guda ideologikoren bat isla ohi dute: noraino joan liteke espetxealdian preso batenganako «ragina» diseinatzeko? Birreztatzea noraino? Birgizarteratzea ezin da lortu edozein prezioan. Mugak egon behar dira: presoek ere giza eskubideak dituzte. Birgizarteratzea, hortaz, ezin da «indarrez» lortu. Historikoki, ordea, birreztatzearen izenean zenbat astakeri egin dira!

Horregatik, pixkanaka-pixkanaka, batez ere Mendebaldeko Europan, sintesi batera heldu da: birgizarteratzea bada presoari egin behar zaion eskaintza. Eskaintza, ez inposaketa. Eta honek esan nahi du presoekin esperimantatzea, beraien pertsonalitatea manipulatzea, ideologia jakin batera behar-tzea, edo, laburbildurik, presoan funtsezko eskubideen gainetik pasatzea ez dela zilegi. Historikoki «birreztatzearen» izenean egonda-ko gehiegikeriak (hala nola mediku-tzeta manipulatiboa, presoaldi mugagabeak, eta abar) errotik baztertzen dira egun, presoan duintasunaren aurka jotzen duten neurrian. Hori dela-eta, denborarekin «birreztatzea» terminoa bera baztertuz joan da, intrusibogia delako. Termino arinagoak nahiago izaten dira: birtxertatzea agian neutroena.

Estatu demokratikotan sendotzekotan birgizarteratzea, birtxertatze jatorrizko zentzura itzuli beharko dugu. Delitu guztietan. Salbuespenik gabe. Lehenbailehen!

### 3. Birgizarteratzearen esanahi gizalegezkoa.

Baina zer da orduan birtxertatzearekin exijitu dezakeguna era zilegian? Presoari exijitza delitu gehiagorik ez egiteko konpromisoa. Presoa kartzelan sarturik, delituak ez egiteko erabaki sendoa hartuko balu, birtxertatze bidea zabalik legoke. Birtxertatze bidea ez luke, hortaz, kartzela barruan eman den denboraren menpe zertan egon. Presoak erabakia hartzen badu, etorkizunean delituzko ez duela egingo bere bizitza aurrera eramateko orduan, nahikoa da birtxertatze bideko prest dago. Beste hitzetan: delituak egiteko prest dagoen bitartean, zentzu horretan «arrisku-tasua» den neurrian, ezin txertatu.

Hau da, gainera, gaur egun Presondegi Lege Organiko Orokorrean jasota dagoena. Orduan, zergatik ez da betetzen?

Ez da betetzen gure gizarteak eta gure politikariek, oro har, gero eta gutxiago birgizarteratze-printzipio edota gizatasun-printzipioetan sinesten dutelako. Presoa berreskuratzeko gogoari da desageritzen eta horren ordez «barruan betiko egon daitezela» edo «ordain dezaten egindakoa» espazio osoa kubritzen ari da, Ilustrazio-garai-ko filosofia desagerraraztearekin batera.

Gainera, motibazio politikoa duten presoan kasuetan, salbuespenezko egoera aplikaturik, ez bakarrik delitua ez egiteko erabakia, baizik eta damua, barkamen-eskera publikoa eta ideologia bera alboratzeko betekizunak ezarri dira. Labur esanda: arriskutsutasun kriminalaz haratago arriskutsutasun «ideologiko» bilakatu da birtxertatze gako. Jauzi honek txikitzen ditu giza-eskubideak, presondegi-eredua, presoan irudia demokratikoa eta birgizarteratze-printzipioa bera ere.

Estatu demokratikotan sendotzekotan birgizarteratzea, birtxertatze jatorrizko zentzura itzuli beharko dugu. Delitu guztietan. Salbuespenik gabe. Lehenbailehen!